

Joanes Erauskinen aditz taulak: azterketa gramatikografiko eta linguistikoa*

Urtzi Reguero Ugarte
urtzi.reguero@ehu.eus

Ricardo Gómez-López
ricardo.gomez@ehu.eus

UPV/EHU

Laburpena

Artikulu honetan Joanes Erauskinen XVIII. mendearen lehen erdian idatzi zituen euskara-gaztelaniazko aditz taulak aztertu ditugu, hala ikuspuntu gramatikografikotik nola linguistikotik. Sarrera baten ondoren, bigarren atalean aditz taulen iturria, euskarazko termino bakanak, paradigma-aldaketak eta beste desbideratze batzuk azaleratu ditugu. Hirugarren atalean Erauskinen laneko euskararen iruzkin linguistikoa egin dugu, geografikoki Albizturkoa izan daitekeela eta kronologikoki XVIII. mendekoa, ondorioztatuz.

Hitz giltzak: *Joanes Erauskin, XVIII. mendea, euskal gramatikagintza zaharra, gipuzkera zaharra, aditz taula.*

Abstract

In this work we study some verb charts written in Basque and Spanish by Joanes Erauskin in the first middle of the 18th century. Our study is composed of two viewpoints: grammaticographic and linguistic. We look for the source of those charts and analyse the Basque terms as well as the changes of paradigms and other characteristics. Next, we write a linguistic commentary of the Basque used by Erauskin, and we conclude seating its origins in the village of Albiztur on the 18th century.

Keywords: *Joanes Erauskin, 18th century, early Basque grammaticography, old Guipuscoan dialect, verb charts.*

* Artikulu honen egileek hurrengo proiektuen laguntza izan dute: «*Monumenta Linguae Vasconum* (IV): textos arcaicos vascos y euskera antiguo» (Espainiako MINECO, FFI2012-37696), «*Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada*» (HLMV-LHC) (Eusko Jaurlaritzak, GIC. IT698-13) eta «*Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuroparrak eta Euskara*» (HiTeDi) (UPV/EHU, UFI11/14). Halaber, Urtzi Reguerok Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) 2010/2011 ikasturtean lau urterako emandako Iker-tzaileen prestakuntzarako laguntzari esker burutu ahal izan du (kodea: PIF10/2010/ PIF10017).

1. Sarrera

Aurreko lan batean (Gómez 2015) Joanes Erauskin Albizturko benefiziadunak XVIII. mendearen erdialdean idatzitako aditz taulak aurkeztu genituen eta haien testua argitaratu genuen. Lan hartan, espazio mugak zirela-eta, ez genuen aukerarik izan euskara-gaztelaniazko aditz taulen azterketa oso eta zehatz bat eskaintzeko, eta zenbait zertzelada aipatu besterik ez genuen egin. Oraingo honetan gure helburua da Erauskinen aditz taulak ikuspegi gramatikografikotik eta linguistikotik aztertzea, alde batetik, haien iturriak eta gramatika ezaugarri interesgarrienak plazaratzeko eta, bestetik, lanaren hizkuntza ezaugarri nagusiak azaltzeko.

Argudio erabatekoak ez zirela oharturik ere, Gómezen lanean (2015: 279) eskuizkribuko letrakeran oinarritu ginen aditz taulen egilea Joanes Erauskin izan zelako hipotesia ontzat hartzeko. Hipotesi horri eutsiko diogu lan honetan ere eta, ondorioz, eskuizkribuko euskara Albizturkoa eta XVIII. mende erdialdekoa izan daitekeela erakusten saiatuko gara.

Lehenik eta behin, aditz taulen azterketa gramatikografikoari ekingo diogu (§ 2), geroago ezaugarri linguistikoak aditzera emateko (§ 3). Ondorioek itxiko dute lana (§ 4).

2. Azterketa gramatikografikoa

2.1. Erauskinen gramatika-lanak honako egitura hau dauka:

- [ff.3r-3v]: sarrera; behar den moduan hitz egiteko jakin behar diren bost gauzez (moduak, denborak, kasuak, numeroak eta generoak)
- [ff.4r-5v]: *izan* aditzaren jokia
 - [ff.4r-4v]: indikatiboa
 - [ff.5r-5v]: subjuntiboa, agintera eta infinitiboa
- [ff.6r-9r]: *amatu* aditzaren jokia
 - Aktiboa
 - [ff.6r-6v]: indikatiboa
 - [ff.7r-7v]: subjuntiboa eta agintera
 - [f.8r]: infinitiboa
 - Pasiboa
 - [ff.8v-9r]: indikatiboa (amaitu gabe)
- [ff.10r-11r]: *izan* aditzaren jokia:
 - [ff.10r-10v]: indikatiboa
 - [f.10v-11r]: subjuntiboa, agintera eta infinitiboa

2.2. Gómezen lanean aurreratu genuenez (2015: 279), Erauskinen eredu «Juan Luis de la Cerda (1601) berritu zuen Nebrixaren latin gramatikaren tradizio luzean bilatu behar dugu». Haatik, ez dugu lortu Erauskinen erabili zuen edizio zehatza identifikatzea. Horren bila, 1675-1750 urteen bitartean argitaratu ziren De la Cerdaren gramatikaren bertsio askotarikoak arakatu ditugu, Esparza eta Niedereheren bibliografiaz (1999) eta *Biblioteca Virtual de la Filología Española* webguneaz (Alvar Ezquerro 2014) baliaturik. De la Cerdaren lanaren argitalpenen eta iruzkinen egoera oso konplexua da, are konplexuagoa XVIII. mendekoa (Esparza Torres 2012). Erauskinen, bistan denez, gramatikaren I. liburua baliatu zuen, hantxe agertzen baitira *ser* eta *amar* aditzen paradigmak. Beraz, De la Cerdaren beste liburu batzuen —batez ere IV. eta V. liburuen— iruzkingileak Erauskinen iturri izan zitezkeenetik kanpo utzi ditugu (cf. Esparza Torres 2012: 102-107). Kanpoan geratu dira, halaber, Aragoiko erresuman argitaratu ziren latin-katalan bertsioak, gehienak Bartzelonan edo Cerveran inprimatuak. Azkenik, Erauskinen iturria Alvares portugésaren gramatika izatea baztertu dugu, aditz modu eta denboren egitura oso bestelakoa duelako. Gauzak horrela, Gaztelako erresuman De la Cerdaren Artea inprimatzeko pribilegioa zuen Madrilgo Hospitalaren eskutik argitaratutakoez gain (De la Cerda 1692, 1723, 1749), beste editore batzuen lanak ere erkatu ditugu (Cerezo 1676, 1715; Mier 1698).

Nolanahi ere den, Cerezok eta Mierrek egokitutako gramatiketan bigarren pertsona pluraleko adizki batzuek gaztelaniaz *-ades* erako atzizkiak dituzte, ez De la Cerdarenetan (eta Erauskinenetan) agertzen diren *-ais* erakoak: indik. irag. burutugabea *erades* vs. *erais*, pluskuanp. *aviades sido* vs. *aviais sido*, subj. irag. burutugabea *fueraides*, *seriades*, *fuessedes* vs. (~~Hots, vs.~~) *fuerais*, *seriais*, *fuessesis*, etab. Orobat, besteak beste, Cerezori indikatiboko geroaldi burutua falta zaio, baita infinitiboko adizki batzuk ere. Ondorioz, edizio zehatza identifikatzerik ez badugu ere, nahiko seguru esan dezakegu Erauskinen erabili zuen iturria De la Cerdaren Artea bera izan zela, ez hartatik eratorritako beste gramatika-lanen bat. Jarraian, Erauskinen eta De la Cerdaren arteko zenbait antzekotasun azaleratuko ditugu, erreferentzia gisa De la Cerda (1749) erabiliz.

Sarrerako testu osoari —euskaraz eta gaztelaniaz idatzia— ez diogu beti De la Cerdaren gramatika testu paralelorik aurkitu. Erauskinen bost azpikategoria («vost gauza») aipatzen ditu: moduak, denborak, kasuak, numeroak eta generoak. Haietatik, lehenik, aditz modu eta denborei dagokienez, Erauskinen sailkapenen eta De la Cerdaren gramatikakoen artean antzekotasun adierazgarriak agertzen dira:

1. TAULA

Aditz moduen eta denboren sailkapenak

De la Cerda (1749: 115)	Erauskin (c. 1750: [3r])
Los modos mas comunes son quatro: Indicativo, Imperativo, Subjuntivo, Infinitivo.	Moduac dira lau: indicatiboa, subyentiboa, imperatiboa eta infinitiboa. Los modos son quatro: indicativo, subyentivo, imperativo y infinitivo.
Los tiempos son seis: Presente, Preterito Imperfecto, Preterito Perfecto, Preterito Plusquam Perfecto, Futuro Imperfecto, y Futuro Perfecto.	Temporac dira sei: presentea, preterito imperp[e]ctoa, preterito perfectoa, preterito plus quan perfectoa, futuro imperp[e]ctoa eta futuro perfectoa. Los tiempos son seis: presente, pretérito inperfecto, futuro inperfecto y futuro perfecto.

Erauskinek emandako kasuen zerrendan latinaren seiak daude eta, hortaz, ez digu balio ustezko iturria identifikatzeko. Orobat numeroari dagokionez, ohiko singularra eta plurala aipatzen baititu. Ordea, generoaz denaz bezainbatean, aski desberdinak dira De la Cerdaren eta Erauskinen sailkapenak:

2. TAULA

Generoen sailkapenak

De la Cerda (1749: 115)	Erauskin (c. 1750: [3r])
Los generos son cinco: Masculino, Femenino, Neutro, Comun de dos, y Comun de tres.	Generoac dira iru: masculinoa, femeninoa eta neutroa. [...] Los géneros son tres: masculino, femenino y neutro.

Aditz tauletan bi autoreek erakusten dituzten antzekotasunak Gómezen lanean (2015: 280) agerrarazi genituen eta, beraz, ez ditugu hemen errepikatuko.

2.3. Euskarazko testuak ere, bere xumean, badu interes historiografikorik. Alde batetik, 3. pertsonako izenordain gisa Erauskinek sing. *bestea* 'aque'l' eta pl. *besteak* 'aque'llos' erabiltzen ditu. Euskal gramatikagintza zaharrean kasu bakarra da:

- (1) Voltoirek adizkien aldean ez du izenordainik jartzen, baina «Pronoms» atalean (c. 1620: 12): «el aquel / il ou luy / harc edo hura» eta «ellos o aquellos / ils ou eulx / heq».
- (2) Mikoletak adizkien ondoan (1653): *a* 'aque'l', *aec* 'aque'llos' absolutiboan eta *ac* 'aque'l', *aec* 'aque'llos' ergatiboan.

- (3) Oihenartek ere ez du adizkien ondoan izenordainik erabiltzen; alabaina «De Pronomine» atalean (1656: 60-62): «*hura vel a, ille [...]. Haec illi*».¹
- (4) Sarako Etxeberrik (1712) adizkien aldean *hura* 'ille', *hec* 'illi' absolutiboan eta *harc* 'ille', *hec* 'illi' ergatiboan.
- (5) Urtek aditz paradigmetan (1714: 73hh.) *hura* 'il', *hec* 'ils' absolutiboan eta *harc* 'il', *hec* 'ils' ergatiboan.
- (6) Lubietak aditz paradigmetan (1728: 49 hh.) *ura* 'aque'l', *aiEQ* edo *ayeq* 'aque'llos' absolutiboan eta *arq* 'aque'l', *aiEQ* edo *ayeq* 'aque'llos' ergatiboan.
- (7) Larramendik ez du aditz paradigmetan euskarazko izenordainik erabiltzen. Izenordainen deklinabidean *a*, *ac* 'aque'l, aque'lla' eta *aiEC* 'aque'llos, aque'llas' erakusten ditu (1729: 24).
- (8) Harrietek (1741: 63hh.) adizkien ondoan: *hura* 'il', *hec* 'ils' absolutiboan eta *harc* 'il', *heieC* edo *heieC* 'ils' ergatiboan.

2.4. Gehienetan, eta euskaraz idatzitako euskal gramatika-lan zahar bakanetan ohikoa denez (Voltaire *c.* 1620; Etxeberrri 1712; Harriet 1741), euskarazko terminologia (ia) guztia maileguez osatuta dago: 3r *moduac*, *temporac*, *numeroac*, *generoac*; *indicativoa*, *subyentivoa*...; *presentea*, *preterito imperp[e]ctoa*...; *nominativoa*, *genetivoa*...; 3v *masculinoa*, *femeninoa*, *neutroa*, etab. Hala ere, Erauskinek behin euskarazko terminologia sortzeko ahalegin bat egiten du: 3v *vacarra* 'singularra' eta *asco* 'plurala'. Aipagarria da Erauskinek numeroei deitzeko hautatzen dituen terminoak Harrietek (1741) bere gramatikan erabilitakoak berak izatea, euskalkien arteko gorabeherak alde batera uzten baditugu: *bakharra* eta *haiñitza*.²

2.5. Aditz paradigma batzuetan denbora aldaketak daude. Irudi luke autoren ez ziola beti ereduari behar besteko arretaz begiratu eta jarraitu, eta, horren ondorioz, noiz edo behin paradigmaren erdian beste denbora bat sartzen du; batzuetan pertsona bakarra aldatzen du eta bestetan aldaketa paradigmako segidako pertsonetara iristen da. Hona erdarazko zenbait adibide:

- (9) 4r *yo era, tú eras, aquel es, nosotros éramos*...;
- (10) 5r *yo huviera sido, tú huvieras sido, aquel huvera sido, nos otros huvéramos sido, vos otros **havíais** sido, aquellos **havía**n sido*;
- (11) 6v *yo avía amado, tú avías amado, aquel avía amado, nos otros avíamos **sido**, vos otros avía**is** **sido**, aquello[s] avía**n** **sido***;
- (12) 8v *yo fui o he sido amado, tú fuiste o has sido amado, aquel fue o ha sido amado, vos otros fuisteis o **havéis** sido amado, 9r aquellos **fuere**n o **huvieren** sido amado*.³

¹ 1638ko edizioan ez dago izenordainei buruzko atalik.

² Euskarazko gramatika-lan zaharretako terminologia adibide gehiagotarako, ik. Lakarra (1997: 12) Voltaire-ri buruz, eta Gómez (2008: 342) Harriet buruz.

³ Paradigma honetan lehen pertsona plurala falta da. Bestalde, hirugarren pertsona pluralak duen denbora aldaketa menturaz beste orrialde baten hasieran agertzeak erraztu zezakeen.

- (13) 9r *yo avía sido amado, tú a[v]ías sido amado, aquel avía amado, nos otros avíamo[s] sido amado...*⁴

Behin paradigma oso-osea ez dagokio izenburuko aditz-denborari. Subjuntiboko *Tiempo de pretérito perfecto* delakoan, *aya, ayas...* laguntzaile zuzenen orde, 7r *yo avía amado, tú avías amado, aquel avía amado*, etab. agertzen dira, berez indikatiboko iraganaldi pluskuanperfektuari baitagozkio eta hor ere (6v) errepikatzen baitira.

Gutxiago izanik ere, baditugu euskarazko paradigma aldaketa batzuk, gehienak 10. orrian metatuak:

- (14) 5r *ni izen nindilla, zu izen ci[n]decela, bestea izen didilla, gu izen guindecela...*;
 (15) 7r *nic ama zaran, zuc ama zazu, besteac amacen du, guc ama zagun...*;
 (16) 10r *ni nincen, zu ciñen, bestea da, gu guera, zuec cera, besteac dira*;
 (17) 10v *ni icengo nincen, zu icengo ciñen, bestea icengo zan, gu icengo guñen, zuec icengo cera, besteac icengo ciran*;
 (18) 10v *ni icen narin, zu icen zaite, bestea icen bidi, gu icen gaitéan, zuec icen cera, besteac icen bite*;
 (19) 10v *ni icen nindilla, zu icen cindecela, bestea icen didilla, gu icen gaitecela, zuec icen zaitecela, besteac icen dicela*.

Beste alde batetik, Gómezen lanean (2015: 281), erdarazko paradigmetan agertzen diren adizki ezohiko batzuk aldaera dialektal bereziak izan zitezkeela iradoki genuen, hala nola *ser* aditzeko indikatiboan geroaldi burutugabeko 4v 10v *nos otros seramos, vos otros seráis* edo geroaldi burutuko 4v *yo habrá sido* (10v *havré*), *nosotros habramos sido* (10v *avréis*, hutsarekin), *vos otros habráis sido* (10v *avréis*); subjuntiboan orainaldiko 5r *vos otros sois* (10v *seáis*), iraganaldi burutuko 5r *nos otros avimos sido* (10v *ayamos*), *vos otros aviais sido* (10v *ayáis*), pluskuanperfektuko 5r *aquel huvera sido* (11r *huviera*), *nos otros huvéramos sido* (11r *huviéramos*), edo geroaldiko 5v *aquellos fueron*, 11r *aquel[l]os fueran*; infinitiboan zirkunlokioko 5v *huvira de [ser]* (11r *huviera*).

Orobat, *amar* aditzeko indikatiboan geroaldi burutugabeko 6v *nos otros amamos, vos otros amaráis*; subjuntiboan pluskuanperfektuko 7v *nos otros huvéramos amado, vos otros huverais amado, aquellos huveran amado*, edo aginterako 7v *amáis vos otros*.

Beste alde batetik, era pasiboko iraganeko denboretan —ez, ordea, orainaldian— pluraleko pertsonekin *amado* partizipioa erabiltzen du (ez ohiko *amados*). Gómezen (2015) lanean susmatu genuenaren kontra, nahasmendu eta errakuntza horiek guztiak nekez azal daitezke arkaismoak edo aldaera dialektalak direla esanez, ezta ereduarekiko arduragabekeria hutsagatik ere.

⁴ Oraingo honetan ez dago garbi paradigma aldaketa baten aurrean gauden ala huts bat den.

Aitzitik, aditzera ematen dute Albizturko benefiziaduaeren gaztelania ez zela oso maila onekoa.⁵

3. Azterketa linguistikoa

Autorearen jaiolekua ezaguturik pentsa genezakeenez, aditz taula haue-
tan islatzen den hizkera Gipuzkoakoa da, eta bertan esperotako ohiko formak
ageri dira, besteak beste *izan* aditzaren 4r *zu cera, gu guera*, 6r *det, dezu,*
degu adizkiak. Nolanahi ere den, badira iruzkin sakonagorik merezi du-
ten ezaugarriak. Beraz, ondoko lerroetan tauletan agertzen diren intereseko
kontu grafiko, fonologiko eta morfologiko batzuk aztertuko ditugu.

3.1. Grafia

Autoreak afrikatuak markatzeko ahalegina egin du 3r 3v *Yzceguiten* adi-
bidean ikus dezakegunez, baina ez da sistematikoa: 3r *necesitacen*, 3v *ize-*
guiten, comprendizen ditu. Hala ere, hiperzuzenketarik ere bada: 5v *Yzcen*
'izen'. Bestalde, igurzkariak islatzeko bizkarkarirako <z> erabiltzen du bo-
kal guztiekin, baina *e* eta *i*-rekin <c> grafemarekin txandakatzen da; kasu se-
guru batean <ç> grafema ere badarabil: 5r *cindeçela*; eta beste batzuetan <c>
pro <ç> agertzen da; hauek, esaterako: 5r *izencaitez pro izen çaitetz, bitec pro*
biteç.

3.2. Fonologia

3.2.1. Hasteko, *a > e / i_* edo *u_* bilakabidea —*Riu* izenaz ere ezaguna—
gertatzen da aditz taula hauetan; honen adibide dirateke *izen, izengo, nincen,*
ninzen, ciñen (passim), 6r nuen, 6v genduen, besteak beste. Hala ere, bilaka-
bidea ez da, inondik inora, sistematikoa, bai baititugu bilakabidea izan ez du-
ten adizkiak ere, hala nola 4r *izan, guiñan, ciñan, cira*.

Ez dakigu zehatz bilakabidearen kronologia zein den gipuzkeran (goi-na-
farreran, esaterako, XVIII. mende erdialdetik aurrera agertzen da), baina geo-
grafikoki Tolosatik hegoaldera agertzen da; Hualde eta Gamindek (1997) To-
losatik hegoaldera dagoen Alegian eta ekialderago dagoen Lizartzan jasotzen
dute bilakabidea. Larramendik (c. 1764 [1986]: 322) Goierrikotzat zuen bila-
kabidea: «También son conocidos [en Goierri] por *bai jaune*, en lugar de *bai*

⁵ Eskerrak eman nahi dizkiegu Lola Pons, Álvaro Octavio de Toledo eta Daniel M. Sáez irak-
kasleei, aditz taulen transkripzioa aztertu ondoren, argi ondorioztatu baitzuten garai hartako gaz-
telaniatiko desbideratzeak ez zegozkela arkaismoei edo aldaera dialektalei, Erauskinek zuen
gaztelaniaren hala moduzko ezagutzari baizik.

jauna». Hala ere, Hurtadok (2001: 42-43) jasotzen duenez, Tolosako bertako hainbat auzo eta baserritan bazen XX. mende hasieran bilakabide hau, baita inguruko herrietan ere, Albiztur barne. Erauskinen taula hauekin XVIII. mendera atzera dezakegu bilakabidearen agerraldia; nolana ere, bilakabide hau ez da gertatzen garaiko inguru hartako beste testu zaharretan. Otxoa Arinek *moduan*, *pekatuari*, *santifikatua*, *reinua* ditu, eta Tolosako dotrinan *lenbizi-kua*, *Jangoikuak*, *kredua* ditugu, besteak beste.

3.2.2. Kontsonanteen artean markagarri dirudi, sistematikoa ez izan arren, bokal arteko $d > r$ bilakabidea: *5r narin*, *5v ero*, *7r zaran* ‘dezadan’. Badirudi XVIII. mendean hedatuago zegoela bilakabide hau Gipuzkoako erdigunean; ik., esaterako, Zizurkilgo 1752ko gutunean agertzen den *dirazu*. Dena dela, lekukotasun idatzietan ez da usu agertzen. Aditz taulan kontrakoa ere, hau da $r > d$, gertatzen da bokal artean: *balida* (*passim*).

3.2.3. Fonologiarekin amaitzeko, *temporac* (*passim*) adibidea dugu, non hitz hasieran herskari ahoskabea dugun, orokorra den ahostunaren partez. *OEH*ren arabera, Gipuzkoan aldaera hau erabili zuten Isastik, Otxoa Arinek, Irazustak eta behin Mendiburuk, eta aldaera bera agertzen da Zegamako dotrinan ere.

3.3. Morfologia

3.3.1. Izen morfologiari dagokionez, 3v *oec* erakuslea dugu. Forma hau aski ezaguna da gipuzkera zaharrean.⁶ Tolosako 1619ko bertso iraingarriak izenarekin ezagutzen direnetan (nahiz eta egiatan Elduaingoak izan) *oen* dago, esaterako, eta Irazustak eta Otxoa Arinek beti *oek* erabiltzen dute, eta ez (*h*)*auek*. *Oen* dugu, halaber, 1875eko Tolosako ordenantzetan. Ez da erakuslearen aldaera hau gipuzkeraren ezaugarri eksklusiboa, goi-nafarreraz Beriainek ere erabiltzen baitu (*ohec*, *oequi* ditu utergarrak).

3.3.2. Garairako berezi suertatzen den ezaugarria 2. pertsona pluraleko adizkiak dira, hauetan ia salbuespenik gabe, *zu*-ri dagozkionak baitira: 4r *zuec cera*, *zuec ciñan*, 7v *Ama zazu zuec eta amatuco dezu*, 10r *zuec icen ciñan*, etab. Zenbait kasutan, ordea, lehen eta bigarren pertsonak bereizten dira adizkietan: 5r *zu izen zaite* / *zuec izen çaitetz*, 5v *izen zaite zu* / *izen zaitetz zuec*, 7v *zuc amatu bacendu* / *zuec amatu bacendue*, 11r *icen zaite zu* / *icen zaitetz zuec*. Ikus daitekeenez, nagusiki aginteran egiten da bereizketa; *zaite* erabiltzen du singularrerako eta *zaitetz* pluralerako.⁷

⁶ Eta ez hain zaharrean ere bai, egun ez baitira arrotzak inguru horretan *oik* (< *oek* ‘hauek’) eta *aik* (< *aek* ‘haiek’) erakusleak.

⁷ Gaur egun, Albizturko eta inguruko hizkeretan ez da arraroa *zaite* entzutea bigarren pertsona singularreko aginteran.

3.3.3. Gipuzkoako erdiguneko hizkeretan, **edun* aditzaren pluralgilea *-e* da, eta testu zaharrek egoera hau islatzen dute: Tolosako 1875eko ordenantzetan *due* eta *dute*, biak daude, eta Bonapartek agindutako Tolosako dotrinan *due* agertzen da beti. Irazustak (Alkizakoa bide zen, baina Hernialdeko apaiza zela idatzi zuen) biak erabiltzen ditu, baina *due* gehiago. Larramendik, ordea, euskarazko testuetan (Azkoitiko sermoia barne) *dute* erabiltzen du.

Ondorioz, testu zaharretan *due* adizkia agertzea iradokigarria dateke, geografikoki kokatzen lagundu lezakeelako. Gipuzkoako hegoaldean eta mendebaldean *debe* eta *deue* ditugu; iparraldean eta ekialdean, Nafarroan bezala, *dute*; erdigunean, aldiz, *due* dugu. Dialektalizazioa ulertzeko interesgarri izan liteke datu hori, monoptongazioan iparraldeko hizkerekin doalako, baina ez du, haiek bezala, pluralgilean berritu. **Edun*-en gainerako adizkietan ere *-e* pluralgilea agertzen da: 7v *bacendue*, *zuen* ‘zuten’ (*passim*). Azkenik, **ezan* aditzarekin ere pluralgile berbera agertzen da: 7r *bezae*.

3.3.4. **Edun* aditzaren adizkietan, orainaldiko hirugarren pertsonako adizkia *du* da. Testua gipuzkerazkoa izanik, honek Gipuzkoako erdialdetik ipar-ekialdera begira jartzen gaitu. Aldaera hau *du*, esaterako, Irazustak bere dotrinan, eta *duela* dago Tolosako bertso iraingarriak deiturikoetan. Hegoalderago, Otxoa Arinek *deu* eta *debe(a)* erabiltzen ditu. Bestalde, testuan bitan *doana* agertzen da, gainerakoetan *duana* dena. Pentsa liteke txandakatzea dagoela eta laguntzaileak *do* eta *du*, bi aldaerak litzuzkeela, egungo Gipuzkoako hizkera batzuek duten antzo. Hala ere, hutsa izan liteke. Hirugarren aukera bat litzateke pentsatzea, laguntzailea *du* izanik ere, bokal ireki baten aurrean *u > o* ireki dela (*doana*), baina irekitzea sistematikoa ez izatea, testuan beste aldaketa fonologiko batzuetan gertatzen den bezala.

**Edun*-en iraganaldian, *-nd-* aldaera zaharra mantentzen da, Otxoa Arinek, Irazustak eta Klaudio Otaegik duten bezala: 6v *ceuduen*, 7v *bacendu*, *baguendu*, *bacendue*.

3.3.5. Erdialdeko eta mendebaldeko ezaugarria da, halaber, iraganaldian *-an* atzizkia erabiltzea. Aditz taula hauetan iraganaldiak *-en* eta *-an* biak ditu: 6r *nuan*, *ceuduan*, *guenduan*, baina 4r *nincen*, *ciñen*, 6r *nuen*. Hala ere, *-en* dutenek aurretik beti /i/ edo /u/ bokala dute, eta hauen eraginaren poderioz dirudi gertatzen dela txandakatze hori (ik. § 3.2.1).

3.3.6. Indikatibotik landa, **edin* daramaten perifrasieta adizkiek *i-i* asimilazioa dute, *bidi*, *nindilla*, *didilla* (*passim*) adibideetan ikus daitekeenez; asimilazio hori ohikoa da Gipuzkoako hego-mendebaldeko, Bizkaiko eta Arabako testuetan. Otxoa Arinek Ordiziako euskaraz idatzitako dotrinan aldaera horiek erabiltzen ditu; behin bakarrik aurkitu dugu *dadin*, besteetan asimilaziodun formak baitarabiltza. Aldiz, Irazustak *bedi* eta *dadin* erabiltzen ditu. Tolosako 1875eko ordenantzetan *dedilla* da forma erabiliena (lau aldiz) eta behin bakarrik *dadilla*. Klaudio Otaegik Bonaparteren aginduz itzuli zuen Tolosako dotrinan ere *e-i* dutenak dira nagusi: *dedilla*, *bedi*.

3.3.7. Subjuntiboko formen artean 5r 10v *gaitean* aldaera zaharra dugu. Gipuzkoako testu zaharretan ohikoa da, bai hegoaldean, Otxoa Arinek baitarabil, bai iparraldean Kardaberazek eta Larramendik bezala. Tolosako dotri-
nan, ordea, *gaitezen* agertzen da.

3.3.8. Erdialdeko euskalkien ezaugarria bide da partizipio pleonas-
tiko berriak sortzea, bereziki *-n* amaiera duten aditzekin. Aditz taula haue-
tan hainbatetan *izan*, *icen* eta *izen* baditugu ere, *izandu*, *icendu* eta *izendu*
ere maiz agertzen dira. Esan bezala, badirudi berrikuntza hori erdialdekoa
dela; baina *izandu* aldaera nagusiki Nafarroan eta Gipuzkoan lekukotzen da.
Esate baterako, Beriainek halako anitz ditu; ez, aldiz, Elizalde. Gipuzkoan
Otxoa Arinek, Irazustak eta Klaudio Otaegiren Tolosako dotrinak usu era-
biltzen dute *izandu* partizipio berria, beti ere *izan* baztertu gabe. Bidasoaz
iparraldeko dialektotetan *izatu* pleonastikoa agertzen da, oro har, Materraz
geroztik.

3.3.9. Morfologiarekin amaitzeko, nabarmentzekoak dira indikatiboaz
landako **ezan* laguntzailean perifrasieta gertatzen diren aferesiak: 7r *ama*
zaran ‘dezadan’, *ama zazu* ‘ezazu’, *ama zagun* ‘dezagun’. Oro har, gisa ho-
netako aldaerak aski berriak dira, gehienbat XVIII. mendearen erdialdetik au-
rrera agertzen baitira; betiere, dirudienez, erdialdeko euskalkietan, bertan
mantentzen baita **ezan* laguntzailea. Irazustak, esaterako, *ezazu* eta *dezagun*
ditu, baina Mendiburuk eta Lizarraga Elkanokoak *zazu* eta *zagun* erabiltzen
dituzte, baita Duvoisinek ere, lehenago Pouvreaux bezala.

4. Ondorioak

Joanes Erauskinen XVIII. mendearen lehen erdian eskuz idatzita utzi zi-
tuen aditz taulak lan xume bat dira euskararen eta euskalaritzaren historian.
Nolanahi ere den, ez zaie interesik falta, hala ikuspuntu gramatikografi-
kotik nola linguistiko eta dialektologikotik. Intereseko alderdi horiek izan
dira, hain zuzen, aurreko orrialdeetan azaldu eta azaleratu nahi izan ditugu-
nak.

Gramatikografiaren ikuspegitik, frogatu dugu Erauskinen gramatika-la-
nak Juan de la Cerdaren *Arte reformado* delakoa hartu zuela eredutzat, nahiz
eta latin-gaztelania gramatika horren tradizio zail eta korapilatsuegatik ezin
izan dugun zehaztu Albizturkoak zein edizio baliatu zuen (ik. § 2.2). Bes-
talde, Erauskinen erabilitako izenordain bitxi bat (sing. *bestea* ‘aque!’, pl.
besteak ‘aquellos’) eta euskarazko termino batzuk (*vacarra* ‘singularra’,
asco ‘plurala’) nabarmendu ditugu (ik. § 2.3 eta 2.4, hurrenez hurren). Az-
kenik, dela arduragabe aritzeagatik dela gaztelaniaren ezagutza eskasagatik,
aditz paradigmetan sartutako denbora aldaketak eta bestelako hizkuntza erra-
kuntzak aurkeztu ditugu (ik. § 2.5).

Hizkuntzaren aldetik, aditz taulak oso mugatuak dira hizkuntza-ezaugarri zurrak ateratzeko, baina orduko gipuzkera zatekeenaren lekukotasun ditugu, zalantza handiegirik gabe. Geografikoki gehiago zehazteko aukera ematen dute, hala ere, zenbait ezaugarrik. Adibidez (cf. § 3.3.4 eta § 3.3.5), *du* eta *due* agertzeak gipuzkeraren erdigunean kokatzen du testua, eta honekin koherentea da § 3.3.1 atalean ikusitako *oec* erakuslea agertzea. Alabaina, *bidi* eta *didilla* (ik. § 3.3.7) gisakoekin hego-mendebaldearekin bat egiten du hizkerak. Gipuzkoako hegoalderantz begira jartzen gaitu, halaber, $a > e / i_$ edo $u_$ bilakabideak (§ 3.2.1). Amaitzeko, erdigune berritzaileko ezaugarriak dira partizipio pleonastikoak (§ 3.3.9) eta aferesiak (§ 3.3.10).

Bibliografia

- Alvar Ezquerro, Manuel (zuz.), 2014, *Biblioteca Virtual de la Filología Española* [online]. Madril. <<http://www.bvfe.es>>.
- Cerezo, Antonio, 1676, *Aelii Antonii Nebrisensis grammatica ab Antonio Cerezo*. Valentiae: apud Viduam Elisabeth Ioan Vilagrasa. [Erabilitako alea: Biblioteca Nacional de España, Madrid, R/21073. <<http://bdh.bne.es/bnearch/detalle/bdh0000078670>>.]
- , 1715, *Aelii Antonii Nebrisensis de institutione grammaticae libri duo, olim emendatim ab Antonio Cerezo*. Barcin.: Ex Typ. Ioannis Piferer. [Erabilitako alea: UCM, Biblioteca Histórica Marqués de Valdecilla, Madrid, BH FLL 11436. <<http://google.es/books?id=wjseXYvotRUC>>.]
- De la Cerda, Juan Luis, 1692, *Aelii Antonii Nebrisensis De institutione grammaticae libri quinque*. Matriti: Ex Typographia Antonii Roman. [Erabilitako alea: Biblioteca nazionale centrale di Roma, BVEE035549. <https://archive.org/details/bub_gb_Dw5dazUMGyIC>.]
- , 1723, *De institutione grammaticae libri quinque*. Matriti: Ex Typog. Emannuelis Roman. [Erabilitako alea: UCM, Biblioteca Histórica Marqués de Valdecilla, Madrid, BH FLL 10255. <http://google.es/books?id=fFdXMimp_dUC>.]
- , 1749, *Aelii Antonii Nebrisensis De institutione grammaticae libri quinque*. Matriti: Ex Typog. Haeredis Ioann. Garcia Infanzon. [Erabilitako alea: Biblioteca nazionale centrale di Roma, BVEE093868. <<http://google.es/books?id=9m1eZ0sGHigC>>.]
- Esparza Torres, Miguel Ángel, 2012, «La recuperación de la obra gramatical de Nebrija en el siglo XVIII». In J.J. Gómez Asencio (arg.), *El castellano y su codificación gramatical. De 1700 a 1835*. Burgos: Instituto Castellano y Leonés de la Lengua, 99-123.
- Esparza Torres, Miguel Ángel & Hans-Josef Niederehe, 1999, *Bibliografía nebrisense: las obras completas del humanista Antonio de Nebrija desde 1481 hasta nuestros días*. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.
- Gómez, Ricardo, 2008, «Euskal gramatikagintza zaharraren historia laburra: XVII-XVIII. mendeak». In X. Artiagoitia & J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren omenez (ASJUren gehigarriak, 51)*. Bilbo: UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia, 329-349.

- , 2015, «XVIII. mendeko aditz taula batzuk: Joanes Erauskinen eskuizkribua». In B. Fernández & P. Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenatge, Homenaje*. Bilbo: UPV/EHU, 277-289.
- Hualde, José Ignacio & Iñaki Gaminde, 1997, «Vowel interaction in Basque: a nearly exhaustive catalogue». *ASJU* 31:1, 211-245.
- Hurtado, Irene, 2001, *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*. Lazkao: Lazkao Udala, Maizpide Euskaltegia eta Goierriko Euskal Eskola.
- Lakarra, Joseba A., 1997, «Hizkuntz eskuliburuen tradizioa Euskal Herrian: I. *L'interprète ou Traduction du François, Espagnol & Basque* (~1620)». *ASJU* 31:1, 1-66.
- Larramendi, Manuel, 1986 [c. 1764], *Corografía de la muy noble y muy leal provincia de Guipuzcoa*. Etxabbarri: Amigos del Libro Vasco.
- Mier, Pedro de, 1698, *Aelii Antonii Nebrisensis de institutione grammaticae libri quinque [...]. Nunc denuo ab innumeris quasi, quibus erroribus, labore, studio et indagations D. Petri de Mier & Casso*. Matriti: Ex Typographia Regia. [Erabilitako alea: Bizkaiko Foru Aldundia, R-894. <http://80.245.0.15/search~S5*baq?/cR-894/cr+894/-3%2C-1%2C0%2CE/frameset&FF=cr+894&1%2C1%2C>.]